


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA

ATEGORRIETA ETORBIDEA 25



Florencio Mocoora Gastesi, 1947.

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, erdisotoa, behegaina eta jatorrizko zazpi goiko solairu dituena, azkena atzeraemana. Bistako adreiluzko fatxada harriz estalitako zokaloaren gainean, ertzak libratzen dituzten hegalkin eta entokatuekin. Lengoia arrazionalista nabarmena bao uztarrietan, leiho horizontaletan, etab. Jatorrizko proiektu komuna Ategorrieta 23rekin, harekin esku hartzeko unitate bat osatuz.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra.

Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu behar den arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Babes erregimen espezifikoa:

A. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: Ez.

B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Ez.

C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Ategorrieta 23-25 esku hartzeko unitatearen barruan egotearen ondoriozkoak.

D. Nahitaezko lehengoratzak: Ez.